



«Euskal presoak etxera ekartzeko» aldarrikapen jendetsua Ibarra

ELKARTASUN EGUNA ▶ Mindegiaga, Aramendi, Aranalde eta Ijurko izan zituzten gogoan atzoko ekitaldietan, «estatus politikoaren alde» ▶ 6



Herriko dantzariak emanaldia eskaini zuten bazkalostean, plazan; aurretik, herriko hiru elkarteetan bazkaldu zuten bertaratuek. M.SOROA

TOLOSA ▶

Loreak eta ehiza nagusi azoka egun eguzkitsuan

Santu Guztien Eguna dela eta, erosle ugari izan zen postuetan ▶ 6

LOPEZ-MENDIZABAL AHIZPAK ▶
ERBESTERATUAK



JOKEMI SAIZAR

«Gerra Zibilak alde egitera behartu gintuen»

Ipar Euskal Herrian eta Argentinan izan ziren 30 urtez ▶ 7

TOLOSA ▶

Eduardo Punset: «Konpromisoa eta nahi izatea bezalakorik ez da gaur egun zoriontasuna lortzeko»

Naturgintzak antolatuta, 'Zoriontasuna XXI. mendean: natura, hiri handiak eta gizona' hitzaldia eskaini du ▶ 4



TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Nola ikusten duzu Gaztetxeen egoera?

Boterean daudenei beldur ematen die gazteek, mugitzen diren gazteek eta bizirik dauden gazteek. Gaztetxeen jendea orokorrean bizirik dagoen jendea da, dinamika bat daramatzaten pertsonak, mundua aldatu nahi duen jendea. Horregatik udaltxeko jendeak eta batez ere (Nafarroako kasu askotan bezala) eskuindarrek hegala moztu nahi dizkiete gazteei, bada ez bada ere, «ez daitezela harrotu eta gutxinaka gizartean indarra hartzen joan». Funtsean, beldurra dutelako ixten dituzte agintariak Gaztetxeak, kentzen dituzte txosnak eta boikoteatzen dute mugimen-

du guztia. Aupa Ateka beltza, Euskal Jai eta Villabonako Gaztetxea.

->

Gazteontzako Gaztetxeak dira gure territorio libre bakarrak. Nola nahiago gaituzte; tabernan, diskotekan, drogaturik? Eskuinak bai alegia! Bakartxo gelditu Donostian

PANTXO ▶

Gaztetxeak itxi ez, gehiago egin behar lituzkete. Udalak hauek babestu behar ditu, eta ez isten lagundu. Gaztetxe inguruetan dabilen jendea asko mugitzen da, lan handia egiten dute gauzak antolatzen... Esan liteke, gizarte lana ere egiten dutela. Horregatik, ez dago eskubiderik gertatzen ari dena gertatzeko! Animo billabonatarrak!

->

UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

Talante onetik aldarte txarrera



Markak haustera doa aurtengo udazkena, aSpaldiko beroena izateko bidean. Eta temperatura nolako, giro politikoa hala, udaberrian hasitako prozesuari erreparatu gero; hala sumatzen da azken egunetako gertakariei erreparatu gero.

Hasiara-hasieratik iragarri zigun prozesua zaila eta luzea izango zela. Nork eta ibilbidea errazten bezala, zailtzen eta luzatzen zerikusi handia izan dezakeenak. Eta hala ikusten ari gara. Alde batek urratsik eman dituenak eta bestea, berriz, planto eroso eta kalkulatu jarraitu duenak. Talante onez.

Bien bitartean, presoek espetxealdiak luzatzea sari, norbere zulo urrunean. Herritarren zati bat legezko ordezkariarik gabe utzi duen legea,

bere horretan. Makrosumarioak aurrera, abian jarri zituen bultzada politik berberetz. Atxilotak nonahi, herriko tabernen miaketak, etab. Baina aiskiria! gauzak ondo doaz, eta prozesua sendoa da!

Kale borrokaren berpizterik ere ikusi dugu bolada honetan; baina zalantzarik gabe, Frantziaren gertatuko arma lapurreta izan da azken egunetako sismograma astindu duena. Eta astinaldi ederra eman ere. Orduan konturatu baikara talante hori ez dela berezkoa, interesatua eta ondo kalkulatu baizik. Nola bestela bihurtu da, bat-batean, aldarte txar ezin disimulatua?

Asteon gertatutakoek ez omen diote prozesuari mesederik egiten. Bat nentorke. Gustatuko litzaidake norbaitek argituko balit udaberriak hona gertatu behar zuenak eta gertatu ez denak, aurreko jokabide politikoaren inertziak, zertan lagundu duen.

Esateko zeukaten, prozesua luzea eta zaila izango zela. Talante onez, lehen. Zergatik aldarte onik ez orain?

ASTEKO IRUDIA ▶



Chikita, Peñaren lorpen berria

Erredakzioa ▶ Argentinatik berri onak heldu dira eskualdera aste honetan, izan ere, Carlos Peña igerilari eta abenturazale tolosarrak Argentinako Chiquita itsasoa zeharkatu zuen igandetik astelehenerako gauean «gogortasunak eta itsasoaren baldintzek bereziki zaila» egin duten bere azken abenturan. 3 etapa behar izan ditu Peñak Chiquita itsasoaren 70 kilometrotan barrera, Miramar hiri argentinarrera heltzeko. «Nere bizitzan zeharkatu dudun urazalik gogorrenetako izan da. Olatuak hain ziren handiak ezen nire lagunaren kayaka ez bainuen ikusten». Jesus Remirez iruindarra izan du bidai lagun azken abentura honetan. Zorionak, beraz, igerilari eta abenturazale tolosarrari!



38. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

gizarte ekintza

kultura

Babesle Ofiziala

kutxa
zer nahi duzu bihar?

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Izan aktiboa, bestela...

Norberak bere ikuspuntua du bizi kalitatearen inguruan, zeri-kusi handia baitute gure espektatibek eta horien asetze mailak. Kontzeptu dinamikoa da, aldakorra, baina esan dezakegu gehienok, guztiok ez esateagatik, bizi kalitatearen maila hobetzea dugula helburu. Asko dira gure bizi kalitatea baldintzatzen dituzten faktoreak: klimatologia, inguru giroa, genetika, osasuna, elikadura, bizimodua... Faktore batzuk aldagaitzak edota aldaezinak direla esan dezakegu, baina beste batzuk gure mende dau-

de, gu geu gara bizimodua kudeatzen dugunak: elikadura, jarduera fisikoa egitea, etab.

Munduko Osasun Erakundeak emandako datuen arabera munduan urtero hiltzen diren 57 milioi lagunetatik 17 milioi gaixotasun kardiobaskularren ondorioz hiltzen dira. Gaixotasun horiek izateko lehen 10 arrisku faktoreen artean, bostek jarduera fisikorekin eta elikadurarekin dute zerikusi.

Estatu mailan, 2 eta 24 urte bitartekoen %13,9 gizenegi daude eta %26,3 gehiegizko pisuarekin eta, 25 eta 60 urte bitartekoen artean, %14,5 daude gizenegi eta %38,5 gehiegizko pisuarekin. Hau da haur eta gazteen artean %40tik gora eta

helduen artean %50tik gora, arestian aipatutako gaixotasunak izateko puntu asko dituzte.

Eta datuen joera gainera okerrera doa, horrek esan nahi duelarik gizentasun eta gehiegizko pisuaren portzentaia areagotzen ari direla.

Egoneko bizimodua eta elikadura desegokia dira gizenegi egon edota gehiegi pisatzearen arrazoi nagusiak.

Zientifikoki frogatua dago jarduera fisikok lotura zuzena duela osasunarekin, horregatik ematen dira gomendioak. Haurrek eskolan egiten duten heziketa fisikoko saioez gain, egunero 30-60 minutu gehiago egin beharko lukete. Heldu eta nagusiei ere gomendatzen zai-

gu egunero edota ia egunero 60 minutuko jarduera fisikoa egitea.

Honekin zer esan nahi duan? Egunero txandala jantzi eta paletan edota futbolearen ordu bete eman behar dugula, ez kasu guztietan. Paseatzeak ere balio du, korrika egiteak, txirrangan lanera joateak, baratzeko lanak egiteak. Modu asko daude jarduera fisikoa edota kirola egiteko. Sasoian bagaude, gazteak bagara, gauza gehiago egin ahal izango ditugu. Garrantzitsuena da ohitura hartzea, txiki txikitatik eskailek oinez igotzea, biharrera oinez joatea edo bidearen zati bat behintzat oinez egitea... bakoitzak aztertu behar du

bere eguneroko dinamika eta jarduera fisikoa edota kirola txertatu han. Gakoa Aktiboak izatea da.

Eusko Jaurlearitzak *Oinez bizi* plana bultzatu du, eta egunero 5.000 eta 10.000 pauso ematera gonbidatzen gaitu.

Elikadurak ere izugarrik garrantzia du bizi kalitatean: Ondo gosaltzeak izugarrik garrantzia du, egunean 5 pieza fruta jan behar ditugu... denetik jan daiteke, oreakan.

Hona hemen bizi kalitatea gorde edota hobetzeko bi gomendioak: aktiboa izan eta denetik jan (modu oreakatuan).

INAKI UGARTEBURU ▶ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KIROLETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

IRITZIA ▶ INAKI ELDUAIEN (TOLOSAKO EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN)

Errepresioa ez da bidea, autodeterminazioa!

ETA erakundeak su eten iraunkorra martxan jarri zuenetik zazpi hilabete pasatu diren honetan estatu espainolak erasoaldi berri bati ekin dio: Espainiako indar armatuak herrikoen miaketa eta lapurretari ekin diote; amnistiaren aldeko mugimenduko bi kide auzitegi nazionalera deituak izan dira eta ondoren atxilotuak; Batasunaren kontrako prozesamendua berretsi dute; eta hurrengo astean ere, beste hiru mahaikide auzitegi nazionalera deituak izan dira.

-Azken hilabete luzeetan ikusi ahal izan denez, Zapatero eta PSOE buru duenak, ez du bide errepresiboaren aldeko apustua baztertu. Alderantziz, beraz erabiltzen eta une honetan areagotzeko saiakerak egiten ari dira.

-Ezker abertzaleak ofentsiba politikoki bati ekin dio kurtso politikoaren hasieran: irekitako prozesuak zeri erantzun behar dion argitzeko; prozesuaren helburua izan behar duen autodetermina-



zioa kalean aldarrikatuz; herri honen hitza eta erabakian oinarrituriko marko politikoki berri bat jokoan dagoela argituz; euskal presoaren eskubideen errepeta eztabaida politikokoaren erdian jarrituz; eta finean, pazifikazio prozesu bat baino herri eta herritarren eskubideetan oinarrituriko prozesua izan behar duela adieraziz.

-Urte luzeetan ezker abertzaleak, besteak beste, eginiko lanaren ondorioz Europako Parlamentuan, Estrasburgon, Euskal Herriko aferaz eztabaidatu da. Eta ez da kasualitatea ere, une garran-

tzitsu honen atarian horrelako erasoaldia eman izana, azken finean eta nahiz eta ukatzen saiatuko diren gatazkaren izaera politikoa eta, beraz, bere baitan irtenbide politikokoaren aldeko gertakaria ere badelako. Honen guztiaren baitan ulertu behar dira erasoaldi berri honen arrazoiak eta ueña bera.

-Ozen esan nahi dugu erasoaldi larri honen arduradun nagusia PSOE eta Zapatero bera direla. Euskal Herriaren ireki den prozesuak aurrera egin dezan baldintza demokratikoak sortu ez eta alderantziz, erasoz eraso ildo errepresibo

antzu baten aldeko apustuarekin jarraitzen dute, herri eta herritarren eskubideak iraunkorki zapaltzen dituen Espainiako zuzenbide estatuaren apologia eginez. Arduradun dira ere, Villabona, Ibarra eta Tolosako herrikoetara joan zirenen nagusiak. Azken hauen papera gatazka politikokoaren mantentzean handia da, eta horretaz luze eta zabal idatzi daiteke (orain egingo ez dena).

-PSOE orain artean erratu egin da eta erratzen ari da. Baldintza demokratiko minimorik gabeko prozesurik ezin da garatu. Garai bateko makinaria juridiko eta errepresiboa indargabetzeko ueña iritsi da alderdien legea barne. Hori egin ezean prozesua bidera ezina izango delako.

-Horrelako erasoekin ezker abertzalea ahuldu eta herriz herri eta nazio mailan burutzen ari garen autodeterminazioaren aldeko aldarri eta oihua isilarazi nahi dute. Eta ez dute lortuko. Orain artean eta urteetan egindako lan eta borroka eskergak ekarri gaitu hona eta, aurrerantzean ere, borroka eta eguneroko lanak ekarriko dizkigu emaitza eta fruitu berriak.

hitza

lagunen txokoa

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

«Konpromisoa eta nahi izatea» bezalakorik ez da, zoriontasuna lortzeko

Eduardo Punseten ustez, «zoriontasuna beldurrik ez izatean oinarritzen da» eta pertsonen arteko harremanak, «dirua eta osasunaren aurretik kokatzen ditu»



Eduardo Punsetek zoriontasunari buruzko irizpideak azaldu zituen, herenegun Chillida-Lekun eskaini zuen hitzaldian. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

ENERITZ MAIZ

Eduardo Punset (Bartzelona, 1936) zientzia dibulgatzaile ospetsua Chillida-Leku museoa izan zen, herenegun, Naturgintza Fundazioak ekarrita.

Bere hitzaldian jorrotutako gaia, *Zoriontasuna XXI. mendean: Natura, hiri handiak eta gizona* izan zen. Ez da erraza zoriontasuna zer den azaltzea edota definitzea baina Eduardo Punsetek argi ditu bere irizpideak. «Zoriontasuna, beldurrik ez izatea da» eta «Zoriontsu izateak, gustuko dituzun gauza guztietan, konpromisoa, ardura eta kontzentrazioa izatea eskatzen ditu. Eta askotan gizakiak, bazterrean uzten du zoriontasunera iristeko bidea». Gaineratu zuen, «zoriontsu izan zaitezke, baina ez denbora guztian, aldi baterako den emozioa da eta hau lortzeko nahi izatea bezalakorik ez dago». Bestetik, Punseten ustez, garrantzitsua da bakoitzak, nor bere emozioen ezagutza izatea eta estresa eta presaka ibiltzeak ere ez dute batere laguntzen. Zoriontasuna bilatzeko orduan, pertsonen arteko harremanak, osasuna eta diruaren aurretik jartzen ditu. Era berean, gizakiak, zoriontasuna lortzea du buruan eta honek arduratsua izatea eskatzen du baina, behin lortuta, galbidean uzten da. Bestetik, orain arte, zientzia, ez da sartu emozioen munduan, ez zuelako nola azterturik baina egun, teknologia berriei esker, neur ditzakete. Saia gaitzezen bada denok zoriontsuagoak izaten.

h h h Motorra h h h

Citroen C4 Picasso 7 eserlekudun
auto berria



Benta aldea industrialdea • Anoeta • Tel.: 943 65 29 33



Corsa
Berria!

OPEL
Giauto

Benta aldea industrialdea z/g
ANOETA 20270 • Gipuzkoa
Tel.: 943 65 00 49

KULTURA ▶


Bonberenea txaranga Triangulon, kalea alaitzen. N. GARZIA

Bonberenea txaranga herriko kaleak alaituz

NAIARA GARZIA

Ostegunean egin zuten *Bonberenea Sufferen* aurkezpen ofiziala eta gero ezinbestekoa zen Tolosako kaleetan zehar berria beste modu batera zabaltzea. Arrazoi honengatik atzo, Bonberenea txaranga kalez kale ibili zen. Triangulon postu bat jarri zuten, ostiraletik kalean den DVDA edonork erosi ahal izateko. Zigilu horretako beste disko batzuetaz gain haiek argitaratutako zenbait idazki eta txosten ere salgai zeuden.

Jende mordo bat bildu zen 11:00etan Triangulon, Zerkau-siko txokoan, eta denbora lu-

'Bonberenea Suffle' -ren argitalpena ospatzeko atera zen txaranga kalera

zez egon zen bertan txaranga izkin hau alaituz. Trianguloko egonaldia eta gero, Tolosako kaleetan zehar kalejiran ibili ziren Bonberenea txaranga, lan berri honen argitaratzearen poza lau haizeetara zabalduz. Euskaldunok dena janarekin ospatzen omen dugu eta hemen ere ezin ba hori falta. Kalejirako buelta amaitu ondoren bazkari batekin jarraitu zuten jai egunarekin. Eta horrela-ko ospakizun egun honi amaie-

ra emateko, gauean, 22:30etik aurrera, hiru taldek kontzertuak eskaini zituzten Bonberenean. Zea Mays-ek, Eraso!-k eta Jonek.

Bonberenea ekintzak argitaratutako DVD hau azken urteetako lanaren ondorio da. Bonberenea Gaztetxetik pasa diren 33 taldeen zuzeneko kantak eta irudiak ere, izan ere, ikusentzunezko DVD honetakoak Bonberenean grabatu eta nahastu dituzte.

LORE JOKOAK

Augustin Zubikarainen omenez

Herri-hizkeraren I. Jardunaldiak

E G I T A R A U A

06ko Azaroak3
Ondarroan
GOIZEAN

>9:00etan Jardunaldien hasiera. Aitor Maruri Txurruka. Ondarroako alkatea

>9:30etatik 10:30etara Juan Luis Goikoetxea Arrieta. Pedagogian doktorea eta euskaltzain urgazlea. "Herri-hizkeraren espresabideak"

>10:30etatik 11:30etara Jose Luis Lizundia Askondo. Euskaltzaindikoa Zuzendaritzako kidea. Euskaltzain osoa. "Herri-hizkera eta toponimia"

>11:30etatik 12:00etara Atsedernaldia/kafea.

>12:00etatik 13:00etara Koldo Zuazo Zelaieta. EHUko irakaslea eta euskaltzain urgazlea. "Herri-hizkera eta euskalkiak"

>13:00etatik 14:00etara Paskual Rekalde Irigoien. Euskaltzaindikoa Euskalkien lantaldeko arduraduna. "Herri-hizkera eta euskara batua"

ARRATSALDEAN

>16:00etatik 18:00etara Mahai-ingurua: "Herri-hizkerak: tokian tokiko esperientziak"

>Jose Luis Erdozia Mauleon. Euskal Filologian doktorea eta euskaltzain urgazlea. "Sakanako hizkera"

>Mikel Etxaburu Osa. Euskal Filologian doktorea. "Ondarroako arrantzaleen hizkera"

>Xarles Videgain. Babeko unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain urgazlea. "Iparraldeko esperientzia"

>Joxe Ramon Zubimendi Imaz. Euskaltzaindikoa Jagon-Corpus batzordearen idazkaria. "Gehiegikeriarik gabeko herri-hizkera"

>18:00etatik 18:30etara Atsedernaldia/kafea.

>18:30etatik 20:00etara Gotzon Aurrekoetxea Olabari. Euskaltzain urgazlea. "Euskal Herriko Hizkuntza Atlas Euskaltzaindia"

>20:00etan Jardunaldien amaiera. Andres Urrutia Badiola. Euskaltzainburua.

Izena emateko: 94 683 36 68 telefonoan eta Ondorengo emailan: mrey@ondarroakoudala.net

www.ondarroa.net

 Ondarroako Udala
 antolatzaileak

babesleak

iragarki laburrak ▶
LANA

Soldatzailea. 35 urte azpiko soldatzailea behar da Adunan, plano interpretazioekin.
 685 75 80 93

Ileapaintzailea. Tolosako ileapaindegi batek esperientzia handiko langilea behar du.
 Deitu 625 70 50 59 telefono zenbakira.

XXV. LIZARDI SARIA



SARIA:
 3.000 euro eta ipuinaren argitalpena

GAIA:
 librea (haur eta gaztetxoentzako ipuinak)


EPAIMAHAIKIDEAK:
 Anjel Lertxundi,
 Yolanda Arrieta,
 Xabier Etxeberria
 eta Imanol Azkue.

AURKEZTEKO EPEA:
 2006ko abenduaren 12a

TOKIA:
 Zarauzko Udala
 Euskara Zerbitzua
 Bolea kalea 2A
 20800ZARAUTZA

ONARRIAK:

Euskara Zerbitzuan - Tel.: 943 005 116



ASTEASU: Gutzitz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 34.000.000 pzta.
TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pzta.
TOLOSA: Zumalakarregi. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Bista ikaragarriak. Sukaldea jarrita. 85.000.000 pzta.
VILLABONA: Arroa. Pisu altua. Berritua. Ganbara ere badu. 49.000.000 pzta.
VILLABONA: Larrea. Pisu altua igogailuarekin. 37.500.000 pzta.
VILLABONA: Eraikuntza berrikoa. 51.000.000 pzta.
VILLABONA: Berogailu eta igogailuarekin. 44.000.000 pzta.
VILLABONA: 3 logela. Erdi eraberritua. 41.200.000 pzta.
VILLABONA: 2 logela. Hormigoiez eraikia. Terraza. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: Apartamentu xarmanta erabat berritua. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: Eraberritutako etxebizitza altzariz hornitua. 40.000.000 pzta.
ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.
ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pzta.

Errota 3 - Villabona
Olazinmo@euskalnet.net
 943 243 118 - 635 706 728

IBARRA ▶ POLITIKA

Preso eta iheslarienganako elkartasuna lau haizetara

«Euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzea eta eurentzat estatus politikoa lortzea» eskatu du lagun andanak Ibarako Elkartasun Egunearen bitartez

MADDI SOROA

Bereziki, Eider Ijurko, Ekaitz Aramendi, Maite Aranalde eta Jon Mindegiaga izan zituzten gogoan atzo Ibarako Elkartasun Egunean. Iheslariak ez zituzten ahaztu, ordea. Izan ere, preso eta iheslarietako «elkartasuna adierazteko» eta beraien izateko «estatus politikoa eskatzeko» eguna ospatu zuten.

Pasa den astean Elkartasun Egunearen inguruan egindako prentsaurrekoan herritarrek aiderazi bezala, «hobe litzateke horrelako egunik ospatu behar ez izatea, zoritxarrez, ordea, espetxe politikako legea ez da betetzen eta guk ez ditugu gure preso eta iheslariak bakarrik utziko».

Ibarran bereziki, baina orokorrean Euskal Herrian gaur egun dauden preso eta iheslarietako babesa emateko Elkartasun Eguna 2006ak egitarau potoloa izan zuen atzokoan. Goizean goiz, diana eta suziri jaurtiketarekin ekin zioten egunari. Ondoren, haurrentzako jolasak izan ziren plazan eta 11:30ean herriko harategiek eskaintako hamaiketakoak datatu zuten bertaratutakoek.

Elkartasunarekin jarraituz, Ibarra eta Orendainen arteko herri kirol lehia burutu zen plazan. Ikuskizun bizi eta giro alaiean jo ta su aritu ziren gazteak nor baino nor gailendu. Gorputza nekatu ondorenean batzuk, eta ikuskizunaz gozatu ondoren besteak, bazkariaren txanda heldu zen 14:00etan. Xepla, Sendi Ekintza eta Deportiba elkarteetan izan ziren bazkariak, herriko elkarteek ere presoek elkartasuna adierazten dietenaren islada gisan.



Herriko gaztekoen ere parte hartu zuten Elkartasun Egunean herriko presoek postalak idatziz. MADDI SOROA



Sendi Ekintzan, Xeplan eta Deportibon egin zituzten bazkariak. HITZA

Gutzira 150 lagun inguru izan zen bazkaltzen hiru elkarteetan banaturik.

Arratsaldeko ekitaldiei Ibarako dantzarien saioak eman zien hasiera. 19:00etan, berriz,

manifestazio jendetsua burutu zen *Euskal preso eta iheslariak etxera* lelopean. Hau amaitzean, ekitaldia izan zen plazan.

Gauak eguna agurtzerako, Fermin Balentzia bakarlaria-

ren ahotsak hartu zuen Ibarra. 22:30ean, Izeba pilarren ilobak eta Skamatxin taldeen kontzertuak eman zion amaiera 2006ko Elkartasun Egunari.

Giro polita bizi izan zen atzokoan Ibarra. Eguraldiak ere ongi bete zuen bere papera eta eguna borobiltzen lagundu zuen gainera. Plazan bildu zen jendea ikusita eta bazkaltzeko 150 pertsona inguru bildu zirela jakinda, Elkartasun Egunearen helburua ondo bete zela esan daiteke.

Postalen txokoa eta EHNA

Izan zen besterik, ordea egun osoan zehar Ibarra. Batetik, EHNA tramitatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek udal-txean. Bestetik, berriz, Ijurkoki, Aramendiri, Aranaldi eta Mindegiagari postalak bidaltzeko txokoa batu ziren herri-tarrak. Gustura jasoko dituzte berriak eta agurrak.

AZOKA ▶

Giro polita eta erosle asko eguraldi onak lagunduta

Ehiza eta Santu Guztien Egunerako loreak izan ziren nagusi salmentetan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka egunean oso giro polita bizi izan zen. Eguraldia lagun zutela, erosle askok erosketak egiteko aprobetxatu zuten eguna. Horregatik, orokorrean eguna ona izan zuten saltzaileek salmentari dagokionez.

Ehiza eskaintza joan den astean hasi zen, hala ere, atzokoan nabaritu zen gehien salmenta mota hori. Usoa pasean dago orain, eta mahai askotan salgai izan ziren 5 euroko prezioan. Perretxiko zerrenda ere oso zabala izan zen, baina hori bai, joan den astekoa baino murriztagoa.

Berdura plazan ere animazio handia izan zen, izan ere, Santu Guztien Eguna gainean dago. Apaingarriko landareen saltzaileek ahalegin handiak egin dituzte aste hauetan eta erramu eta zentro asko dauzkate datozen egunetan azokan saltzeko.

AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Gibelurdina	—	20,00
Onddo	—	7,00
Intxaurra	—	3,00

Produktu ekologikoak		
Ahuntz gazta	3,00	—
Mermelada	3,00	3,60

Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Ziklamena	5,50	—
Siemprevivas	6,00	—

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IZASKUN ETA IXIAR LOPEZ-MENDIZABAL ▶ ARGENTINAN ERBESTERATUAK

«Gerra Zibilak dena kendu zigun eta herritik alde egin behar izan genuen»

Ipar Euskal Herrian eta Argentinan 30 urteko erbetea ezagutu zuten; aita zuten Ixaka Lopez-Mendizabalekin kultur lan handia egin zuten



Izaskun —ezkerrean— eta Ixiar Lopez-Mendizabal bere etxean, Ixaka aitaren argazkiarekin. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Izaskun (Tolosa, 1928) eta Ixiar Lopez-Mendizabal (Tolosa, 1932) ahizpei bizitza aldatu zien Gerra Zibilak. Egun gutxitan dena izatetik ezer ez izatera pasatu ziren. Lehendabizi Ipar Euskal Herrira eta gero Argentinara erbesteratu behar izan zuten bere anaia Xabier —11 urte zituen—, ama Antxoni Olano eta aita Ixaka Lopez-Mendizabalekin. Itzuli ondoren, urteak pasatu zituzten zeuzkaten gauza batzuk berreskuratzeko. **Nola bizitu zenuten gerra hasiera?**

Oso txikiak ginen hiru anai-arrebak, maleta eta ezer gabe ateratu ginen amarekin gerra hasi baino egun batzuk lehenago. Hamabost egunetarako edo joaten ginela uste zuen amak. Urkizura joan ginen Seguroa apaizaren etxera. Astebete egin genuen. Hegazkinak ikusten genituen. Handik Oriora joan ginen autoz. Aitaxo ez dakigu non zebilen alderdiarekin. Astebete edo bi aste egin genituen hotel batean, Hondarribira joan ginen eta handik txalupan pasatu ginen Hendaiara. Cervera barkua Guadaluperen kontra tiraka aritu zen Hondarribian. Aitak bazuen baimen berezia muga pasatze-

ARGENTINARA

«Donibane Lohitzunetik 1940ean ateratu ginen, Munduko Gerraren beldurrez; bost hilabete iraun zuen bidaiak»

ko, baina guk ez. Txalupa beteta joan zen. Donibane Lohitzunera joan ginen autoz aitaxorekin eta 1940 arte egon ginen, munduko gerraren beldurrez ateratu arte. Aitaxo bi urte lehenago joan zen Argentinara. Agirre lehendakariak esanda, kultur lana egitera. Artxanko, Aldasoro tolosarra, Cunchillos nafarra eta aitaxo euskal delegazioa ziren. Amerikarrei Euskadi eta euskara zer zen erakustera, Gernika ez genuela erre esatera joan ziren.

Nola izan zen bidaiaria Argentinara?

Bost hilabete iraun zuen guztira, 1940eko uztailaren 12tik abenduaren 14 arte. Bordelera joan ginen, La Rochellera, egun batzuk pasa eta ateratzeko baimena eman ziguten. Azken barkuan ateratu ginen. Munduko Gerra zen eta alemaniarrek bazetozen. Lisboa parean bombardatu zituzten eta Cablanca bi hilabete egin ge-

AITA

«Agirre lehendakariak bidali zuen Argentinara, Euskadi zer zen erakustera eta Gernika ez genuela erre esatera»

nituen portuan zain. Errefuxiatuena taldean 39 ginen. Horietaz gain, judutar eta senegaldar aberriratu asko joan ziren. Gosea pasatu genuen barkuan.

Eta Buenos Airesen zer?

Sekulako jende pila joan zen gu hartzera aitaxorekin. Amak asko sufritu zuen bidaiari. Pentzio batean jarri ginen bizitzaren aurrea eta gero Laurak Bat euskal etxearen pareko elizan zegoen etxebizitza txiki batean. Aita Laurak Bateko lehendakaria izan zen eta kultur aldetik lan handia egin zuen: Euzko Deya aldizkaria, Ekin argitaletxea, Lagun Onak abesbatza eta Saski Naski dantza taldea sortu zituen, euskal meza egiten zuten hilerio. Eta guk ere parte hartu genuen horietan.

Lanik izan al zenuten?

Aurrea eskolan hasi ginen, nahiz eta dirurik ez izan hezkuntza ona jasoko genuela esan zioten monjek amari. Izaskun, makina eta takigrafia

KONFISKATUTA

«Lehendik genituen inprimategia, etxeak, garajea eta gasolindegia berreskuratzeko auzi ugari izan genituen»

ikasi ondoren, lanean hasi zen aitaxorekin euskara ikasten zuen enpresari aragondar batekin, Perfumes Dana enpresan 1947tik 1966an itzuli arte. Sekulako agurra egin zioten. Ixiarrekin aitaxorekin egiten zuten lan. 80 liburu ateratu zituen guztira, pezetarik jaso gabe. Xabier leondar batzuekin denda batean, gero Ramontxo Soto itsasuntzigitale bilbotarraren negozioetan idazkari gisa, eta gero Manuel Gurmendi donostiarraren lantegian erosketa arduradun bezala.

Eta jabetzak berreskuratzeko zer egin zenuten?

Etorri aurretik bi aldiz izan ginen hemen, Xabier 1955ean eta Ixiar 1964an, ea zerbait lortzen genuen. Etxea, inprenta, San Frantziskoko garajea eta gasolindegia —Etxe Txuri eta Etxe Gorri, gero alkartetxea izan zena— konfiskatuta zuden. Inprentako makinak Burgozera eraman zituzten, Fran-

coren bileteak egitera. Gure familiak 1750etik zuen inprenta hemen. Ixiar lau hilabeterako etorri eta zortzi pasatu zituen. Inprenta 1955ean berreskuratu genuen, Xabier etorri zenean. Bost hilabete kostatu zitzaion. Dena hondatuta jaso genuen. Ixiar etorri zenean Juan Caballero abokatu donostiarrarekin harremanetan jarri zen, aditua zen erendamentu urbanoetan. Ez zen gure ideietakoa, baina asko lagundu gintuen. Gero, etorri ginenean, Ixiarri lana eman zion bere bulegoan. Etxeak balio handia zuen guretzat, familia mende askotan bertan bizi izan delako. Bigarren pisua, aitona bizi zena, hutsik zegoen, eta alokairuagatik huskeria ordaintzen zuena Donostian bizi zen eta etxe berriak egiteko bakarrik nahi zuen. Epaiketan lortu genuen. Hondatuta zegoen. Bosgarrena ere berreskuratu genuen. Gasolindegia beranduago berreskuratu genuen, bost urteko auzi baten ondoren, Madrileraino iritsita.

Nola izan zen itzulera etxera?

Amatxo gaixo zegoen, etorri eta handik bost hilabetera hil zen. Gurasoek etxera etorri nahi zuten, baina etortzeko arazoak zituen aitaxok. Ezagun batek Espainiako kontsulatu edo enbaxadan egiten zuten lana eta haren bidez jakin genuen sarrera baimenduta zuela, baina ateratzeko aukerarik ez zuela. Gainera 100.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen, delinkuentea balitz bezala. Bi urtez Donostian egon ginen hona etorri aurretik.

Zuen aita pertsonaia bat izan zen euskal kultura eta politikar mailan.

Lana besterik ez zuen egin bizitza osoan eta oso gutxi errekonozitu zioten. Bi karrera zituen, Zuzenbidea eta Filosofia, tesi doktoralararekin biak. Etxeak administratu egiten zituen, abokatu lana eta lehen euskarazko egutegia egin zuen 28 urtez. Ikastolaren sorreran parte hartu zuen gerra aurretik. Errepublikara garaian Eskolapioetako zuzendari izan zen, bidali behar zituztelako.

Gerra Zibilaz zein irudi gelditu zaizue?

Gerrak dena kendu zigun: etxea, liburuak... eta herritik alde egin behar izan genuen. Gure bizitza aldatu zuen. Ezer gabe gelditu ginen.

OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa eta orain arte sail honetan argitaratutako artikulu guztiak osorik gure webgunean ikus daitezke.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 29a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



BIHARKO EGURALDIA

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Tolosako Abesbatzen Lehiaketan parte hartuko duen Erresuma Batuko Voces Cantabiles abesbatzak emanaldia eskainiko du Anoetako elizan, 19:00etan.

Aiztondo. Aiztondoko III. Argazki Rallya egingo dute, Adunan, Larraulen, Alkizan eta Zizurkil, 09:30etatik 10:30etara bitarte. Adunan emango zaio hasiera eta Zizurkil Goian bukatuko dute.

Belauntza. Jubilatutako Egunaren egitarauaren barnean, Bertso Musikatua izeneko saioa izango da Irrintzi Produktio taldearen eskutik, 16:30ean Benta tabernan.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

40. ezkon urtebetetzea (Atzerapenez).
Asier, Eñaut eta Anaren partetik



URTE ASKOAN

Maddi Bengoetxea Jaular.
Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



URTE ASKOAN IÑAKI

Bihar 3...? Ondo-ondo pasa, zure iloba Aimar, Iraitz eta Ugaitzen partetik!



URTE ASKOAN

Zorionak Attona Lontxo!
Atzo 87 urte... Bejondeizula!
Familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Nora Urdanpilleta (Anoeta). Bihar 4 urte.
Zorionak etxeko partetik.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, *La joven del agua* filma ikusgai, 19:30ean. Prezioa, 4,5 eurokoa da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea, 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

Bihar

Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 26 38.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Hitzak hegan* (errepikapena).

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



ZORIONAK IÑIGO!

Animo lagun, maite haugu Villabonatik! Jo ta ke!



ZORIONAK IÑIGO!

Etxeko partetik zorionak eta muxuak!

3 megako Banda Zabala



Deiak Telefono Finkoetara 24 Orduz hileko telefono-kuota barne



Proba ezazu etxean 3 hilabetez

hilean

1€

ordainduta*

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa hilean beste 10 € bakarrik ordaintuta.



San Francisco, 19
Tolosa
☎ 943698126

Euskaltel

en Banatzaile Ofiziala

*Sustapen honek 2006ko abenduaren 31a arteko kontratazientzat balio du. Sustapenaren epea amaitu ondoren, produktu guztek kontratututuzegituko dute, bezeroak besterik jakinarazten ez bada. Telefono finkoetara 24 orduz egindako deiak, Aholkari Finkoetara baldintzen arabera, Ez dira sartzen nazioarteko deiak, tarifa gehigarrikoak, sare adimenduna eta mugikorak. Gehienez, hilean 5,000 minutu. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15 €, Aholkari Finkoak 13 € eta Internet 3 Mega 39 €, Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hiru hilabeteetan balio du, Kontsultatu sustapen honen baldintzak.